

## MUko Diseinuko ikasleak bikaintasun-ziurtagiriarekin sarituak izan dira.

2010/09/13

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Industri Diseinuko hiru ikasleri "bikaintasun-ziurtagiria" eman diete James Dyson Award nazioarteko diseinuko lehiaketan aurkeztutako produktuagatik.

Kasko ultrarin eta ergonomiko bat da, zeinetan zirrikitu bat nabarmentzen den txirrindulariak betaurrekoak jantzita ez dituenean hor jarri ditzan. Gainera, kasko honi airbag sistema bat gehitu zaio, erorketetan lesioak jasateko arriskua gutxitzeko. AHARIXE izena dauka.

James Dyson Award nazioarteko diseinuko sari bat, diseinuko ingeniarien hurrengo belaunaldia errekonozitu, sustatu eta inspiratzen duena. Erronka arazo bati irtenbidea emango dion zerbait diseinatzea da, ideia berriak eta produktuari kalitatea emanez. Lehiaketan hainbat herrialdeetako produktu diseinatzaileak, industri diseinatzaileak eta ingeniartzako ikasleak parte hartu dute: Alemania, Australia, Austria, Belgika, Kanada, AEB; Espainia, Frantzia, Herbehereak, Irlanda, Italia, Japonia, Malasia, Zeelanda Berria, Erresuma Batua, Errusia, Singapur eta Suitza.

